


VILLA URTXO
D MAILA**MATXIÑENE 6**

M. Antonio Setien, 1926

Deskribapena

Bakarrik 15 bizitza eraiki zituzten, 5 etxetan banatuta, jatorrizko ideiak 400 bizitza jasotzen bazituen ere. Ideia hori Maria Kristina erreginak sustatu zuen, etxebizitza merkeak egitearren. Geroago, ekimen partikularrek bultzatuta beste 14 eraikin altxatu zituzten. Porrotaren arrazoiak toki horretan langileentzako etxebizitzak egiteko zailtasunekin daude lotuta, izan ere bere garaian garraio publikorik ez zuen inguru horretan okupazio dentsitatea txikia zen, eta eraikinen etekin ekonomikoa kaxkarra. Loiolako lorategi hiriaren planorako, kontuan hartu zituzten bai erdiko plazaren ideia bai lorategi hiriaren ideia teorikoa. Trazatu erradial bat eta garai erregionalistako etxe multzo bat geratu dira, hirukiko kaleak bide nagusira iristen dira zuzenean, eta erdiko plaza zirkularren ideia ez da inon ageri. Villa Urtxo oinplano estu eta luzeko etxea da, bi mailakoa, eta malda arineko isurki biko estalkia du. Alboko horma piko bat ateratzen da gora, beste fatxada bat duela aurrean libre geratzen den espaziorantz. Landakoen itxura du, plano zuri kareztatutik ateratzen diren harriak agerian azpaduretan, kantoietan eta eraikuntzako zokaloan. Horiei guztiei gehitu behar teilatu-hegaletan, balkoietan eta horma pikopeko bilbadura adreiluz beteetan pintatutako zura.

D mailako babes erregimen espezifikoa

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: ez.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harrizko elementuak, zurezko elementuak, bilbadura eta adreilua. Estalkia.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurarik gabe.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.